


ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2010EKO MARTXOA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo dira 2010eko martxoan, aurreko hilearen aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2009ko martxotik 2010eko martxora) eraikuntzaren kostuak %1,0 igo dira.

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzaren kostuen indizeak %0,1eko igoera izan du 2010eko martxoan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %1,0eraino igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) Gehikuntza martxoako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Eraikuntzaren kostuen indizea

2010eko martxoan lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), baina lehengaien kostuak %0,1 igo dira.

Martxoan, Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek bilakaera ezberdina izan dute lehengaien kostuari dagokionez: eraikuntzak %0,1eko jaitsiera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra Zibilako lehengaien kostuek %0,9ko igoera. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaerari dagokionez ere, bilakaera ezberdinak eman dira: eraikuntzako lehengaien kostuak %0,1 jaitsi dira, eta obra zibilekoak %4,6 igo.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan duena petrolioaren birfinketaren (%40,3) sektorea izan da. Prezioetan igoera positiboak izan dituzten beste sektore batzuk honakoak izan dira: industria ez metalikoa (%1,7), industria kimikoa (%1,0) eta material elektrikoa (%0,8), besteak beste. Beste alde batetik, urteko prezioetan (2009ko martxotik 2010eko martxora) beherakada izan dute, besteak beste: energia elektrikoa eta gasa sektoreko lehengaiak (-%7,9), gai metalikoak (-%2,7), metalurgia (-%2,4) eta material elektrikoa (-%2,3).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA. 2010EKO MARTXOA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,0	0,1	1,0	1,5
ERAIKINAK	117,7	-0,1	0,3	1,3
OBRA ZIBILA	119,1	0,6	3,9	2,6
LEHENGAIEN KOSTUA	117,0	0,1	0,8	1,4
ERAIKINAK	116,7	-0,1	-0,1	1,1
OBRA ZIBILA	118,0	0,9	4,6	2,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,7	0,0	2,0	2,0

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [Eraikuntzaren kostuen indizea](#)

Datu-bankua: [Eraikuntzaren kostuen indizea](#)